



Bertsolari txapeldunen azterketa prosopografikoa (1936-2017)

Ainara Urkijo Macias
Historiako Gradua
2017-2018 ikasturtea
Bertsolari txapeldunen azterketa prosopografikoa (1936-2017)
Unai Belaustegi Bedialauneta
Historia Garaikidea



LABURPENA

Bertsolaritzaren historiari buruzko bibliografia topatzea nahiko zaila izaten da horri buruz gutxi idatzi baita. Hori dela eta, lan hau burutzeko prosopografia erabiltzea komenigarriena izan da, tresna horrekin bertsolari eta bertsolaritzako hainbat ezaugarri bildu ahal izan direlako. Txapeldunak izan diren bertsolariengan zentratu da lana eta epe jakin batean, Trantsizio garaitik (1975-1982) gaur egunera arte, (2017). Hala ere, lan osoan aurrekari moduan Gerra Zibila (1936-1939) eta Frankismo garaia (1939-1975) sartuko lirateke. Muga horiek ezartzearen helburua, garai bakoitzean egondako ezberdintasunak eta ezaugarriak alderatzea izan da, eta horrez gain, bertsolaritzak zer nolako aldaketa izan duen jakitea, bertsoen egiturari, txapelketen antolaketari, etab.

Historialariek edozein lanetan edukitako arazoak zeintzuk diren adierazi ahal izan da lan honen barruan, izan ere, iturriei dagokienez, askotan zailak izaten dira zehazten edo aurkitzen. Hori dela eta, lehen aipatutako prosopografiaren bidez eta horren barruan topa daitekeen elkarrizketa bidezko iturri motaren bidez lana burutzea posible izan da. Horrekin, bertsolari bakoitzaren eremu pertsonal batzuk zeintzuk diren jakin ahal izan da, hau da, hezkuntza mota, esparru soziokulturala, bizitza, etab. Horrez gain, euskararekin eta euskal kulturarekin zer nolako harremana izan duten jakitea posible izan da ere. Eta faktore horiekin batera, bertsolaritzak zer nolako lotura estua izan duen euskaldunen ezaugarri eta sentimenduekin ere. Galdera multzo bakoitzean emaitza ezberdinak atera ahal izan dira eta horiek prosopografia azaldu ondoren kokatzen dira, lanak orden bat eduki ahal izateko.

Galdetegi batekin elkarrizketak burutu ahal izan dira, hala ere, interneteko datu-basea erabili da eta horrez gain, bibliografia ugari. Iturri ezberdinak erabiltzearen arrazoia, biografiak eta falta izan diren hutsuneak betetzea izan da. Azkenean, Gradu Amaierako Lan honen bidez, bertsolari bakoitzak bizitako istorioak jakin ahal dira eta esperientzia ezberdinak. Horiek guztiak batuz, ondorio batzuk atera ahal izan dira bertsolaritza munduarekin lotuta daudenak alegia. Horrez gain, euskararekin eta emakumeen paperarekin lotura daukaten ondorio batzuk atera ahal izan dira ere.

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3-4. orrialdeak
2. Zer da bertsolaritza?	5-6. orrialdeak
3. Bertsolaritzaren historia	6-12. orrialdeak
3.1. <i>Hastapenak</i>	<i>6-7. orrialdeak</i>
3.2. <i>XIX. eta XX. mendeak</i>	<i>7-11. orrialdeak</i>
3.2.1. <i>Gerra Zibila eta Frankismo garaia</i>	<i>10-11. orrialdeak</i>
3.3. <i>Txapelketa Nagusien historia</i>	<i>11-12. orrialdeak</i>
4. Azterketa prosopografikoa	12-18. orrialdeak
4.1. <i>Prosopografia lantzeko taldearen antolaketa</i>	<i>14-17. orrialdeak</i>
4.2. <i>Elkarrizketa bidezko iturria</i>	<i>17-18. orrialdeak</i>
5. Azterketa prosopografikoaren emaitzak	18-21. orrialdeak
6. Ondorioak	22-26. orrialdeak
7. Bibliografia	27-29. orrialdeak
8. Webgrafia	30. orrialdea
9. Elkarrizketak	31. orrialdea

1. SARRERA

Jarraian, 2017-2018 ikasturtean burututako Gradu Amaierako Lana irakurriko duzu, zeinetan gai nagusia bertsolaritzaren historia den. Izenburua irakurrita, badirudi historiako lan guztien antzerakoa izango dela antolatu, egin eta irakurtzeko momentuan, baina, esan behar da, lana egiteko metodologia beste era batekoa izan dela, eta horrekin, historia idazteko orduan, beste metodologia bat ikasi ahal izan dudala esan dezaket, prosopografia. Graduan zehar prosopografiari buruzko informaziorik jaso ez dugunez, hasieran zer den ulertzea zaila izan da, baina, erabilera eta daukan helburua ulertzean, interesgarria den tresna bat dela baieztatu dezaket. Zergatik hain interesgarria? Pertsona baten bizitzari buruz idazten delako, biografia bat osatuz eta horrekin ondorio asko atera ahal direlako, ondorioak bide batetik edo bestetik bideratuz.

Edozein Gradu Amaierako Lan baten moduan, denbora eman behar izan da dena antolatu ahal izateko, baina, esperientzia ezberdinarekin. Izan ere, prosopografia erabiltzerakoan, bibliografia begiratzeaz gain, elkarrizketek pisu handia daukate informazioa eskuratzeko momentuan. Bertsolariei egindako elkarrizketekin, beraien bizitza ezagutzeaz gain, guk bertsoekin eta bertsolaritzarekin izandako harremanak ezagutu nahi izan dira, euskara eta euskal-kulturarekin izandakoarekin batera. Ikerketa prosopografikoa bertsolaritzan aplikatu dugu, niretzat euskarak indar handiena daukan lekua delako, oihartzuna lortuz. Metodologia mota hori aukeratu da, emaitzekin txapedunen perfila atera daitekeelako eta etorkizunean honi buruz lan egiten jarraituz gero, konprobatu ahalko da perfilak antzekoak diren ala ez.

Jasotako informazio osoa atalez atal banatu egin da lan honetan, lehenengo atalean, bertsolaritza zer den azaltzen da, zein ezaugarri dituen adieraziz eta jarraian, bertsolaritzaren historia labur bat irakur daiteke gaian hobeto murgildu ahal izateko. Ondoren, prosopografia zer den azaltzen duen kapitulua kokatzen da, tresna horren erabilera eta ezaugarriak zeintzuk diren azalduz, irakurleari ulermena errazteko besteak beste. Azkenik, lan osoa egiterakoan ateratako ondorioak daude, grafiko batzuekin lagundua. Informazio guztia kronologia jakin batean kokatzen da, Trantsiziotik gaur egunera arte. Horren arrazoia, iturriak baldintzatuta daudela da eta Trantsiziotik aurrera bertsolaritza modernoaren oinarriak hasi zirelako.

Eskerrak eman nahi nioke Unai Belaustegiri, lana egin ahal izateko erraztutako informazioagatik, eta horrez gain, beharrezkoak nituen aholkuak emateagatik. Bestalde, eskerrak eman nahi nizkieke lan hau burutu ahal izateko ezinbesteko laguntza eman didaten bertsolariei lan hau aurrera bideratu ahal izateko. Azkenik, inguruko lagun eta unibertsitatean ezagututuako lagun min berriei eskerrak eman nahi nizkieke azkenengo txanpan jasandako egun potoloetan prest egoteagatik.

2. ZER DA BERTSOLARITZA?

Bertsolaritza munduan murgiltzerako momentuan, horrek daukan esanahia zein den jakin beharko litzateke eta zein atalek osatzen duten. Orokorrean, hiru atal daudela esan daiteke; bertsolaritza, bertsolaria eta bertsoa. Bertsolaritza kontzeptuak, Joxerra Garzia-ren hitzak kontuan hartuta, bertsoak bat-batean asmatzeko arteari egiten dio erreferentzia. Arte horren barruan, bertsolaria sartuko litzateke, entzulegoaren aurrean bertsoak bat-batean asmatzeko gaitasuna daukan pertsona dena eta ez aurretiaz prestatuta dituztenak, hau da, inprobisazio gaitasun handia daukaten pertsonak dira. Beste era batean esanda, bertsoak abesten dituzten pertsonak izango lirateke. Azkenik, bertsoari dagokionez, bertsolariak abestu edo batzuetan idazten duen hori izango litzateke, erdaraz *verso* edo *verse* deitzen den moduan, estrofa osoa izango litzateke eta ez lerro bakoitza¹.

Bertsolariak, beraien inprobisazioetan, poesia eta txantxa nahasten dituzte normalean. Azken finean, bertsolarien ekarpena horretan datza, hau da, arlo ezberdinen arteko nahasketa egitean; gizarte-albisteak, politika, sexua, kultura, etab². Normalean, aurreko bertsolariak esandakoaren erantzuna izaten da, aurkakotasuna nabarmenduz eta zirrikadez betez. Inprobisazio horien barruan amankomunean dagoen ezaugarri bat dago, bertsolariak betiere doinu jakin bat erabiltzen duela eta “a capella” moduan abesten duela³. Ezberdintasuna, doinuan egoten da normalean, doinu bakoitzak, eredu metrikoa zehazten baitu, alegia, silaba kopurua. Nahiz eta, silaba kopuru bat eduki doinuak, bertsolariak ez du normalean silabak zenbatzen, doinuari egokiarazten saiatzen baita.

Errimari dagokionez, doinuak zehazten duen faktore bat da eta normalean, errima kontsonantea edo osoa izaten da. Bertsogintzan gehien erabiltzen diren estrofak, zortziko izena daukatenak dira, eta horren barruan bi mota daude, alde batetik zortziko txikia, hamahiru silabako lau puntu dituenak eta amaierako hitzak markatutako errima bete behar duena. Zortzi lerroz osatuta daude 7-6 neurriko lau puntuz osatua, eta hortik dator “zortziko txikia” izena, zortzia baino baxuagoa delako. Puntua, amaieran errima duen lerro bakoitzari dagokio. Bestalde, “zortziko handia” dago, hamazortzi silaba izan

¹ Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*, Etxepare Institutua. Donostia. 8.or.

² *Ibidem* 31. or

³ *Ibidem* 31. or

behar dituenak puntu bakoitzak, hurrenez hurren, 10-8 neurria izanda⁴. Neurri hauez gain, gaiaren eta testuinguruaren arabera, beste neurri mota asko erabiltzen dira, hala nola, hamarrekoak, koplak (zortzikoaren antzekoak direnak), seikoak...

3. BERTSOLARITZAREN HISTORIA

3.1. Hastapenak

Bertsolaritzaren historiari dagokionez, informazio gutxi dagoela antzeman ahal izan da, baina, horren agerpenari buruz mintza daiteke. Aipatzekoa da, mito edo ikuspegi ezberdinak egon direla denbora luzean zehar bertsolaritzaren hasiera noiz izan zen mintzatzen dutenak. Orokorrean, bi daudela esan daiteke; alde batetik, mitoetako baten arabera, jatorria, antzin-antzinean kokatzen da. Bestetik, “nazionalismoa”-ren nolabaiateko asmakizun bat izan zela dioenik ere bada. Joxe Azurmendik, bertsolaritzari buruzko bi aipamen plazaratu zituen Bizkaiko Foru Zaharrean aurkitu zirenak eta 1452 urtean idatziak. Bertsolaritzari buruzko aipu zaharrenak izan zirela esan daiteke frogatuak izan bat bihurtuz, ondorioz, XV. mendearen erdialdean jada bertsolaritza garatu zegoela ikusi ahal izan zen. Antza denez, azoka eta beste ospakizunetan, inprobisazio jarduerak egiten zituzten eta normalena, emakumezkoek egitea izaten zen. Hala ere, denbora pasatu zen heinean, emakume horien papera bertsolaritzan gutxituz joan zen, XV. eta XIX. mendeen bitartean bertsolaritzatik desagertu zelako⁵.

Aipatu den moduan, XV. mendean kokatzen da bertsolaritzaren testigantza idatzia, Emilia Lasturkoa⁶-ren edo euskaraz Milia Lasturkoa-ren eresia bezala izena zeukana bereziki. Dokumentu hori, aurkitutako euskal ahozko poesiako lehenengo zantzua izan zen, bat-batekotasunaren lehenengo eredu izan zena eta emakumeek osatutakoa⁷. Hala ere, bertsolaritza garatu baten zantzuak aurkitzeko, XVIII. mendearen amaierara eta XIX. mendera pasa beharko litzateke, izan ere, azkenengo mendea, dokumentatuagoa egon zen. Azken finean, epe horretan kontserbatutako bertso gehienak, *bertso jarriak* ziren, hau da, paperean idatzitako bertsoak eta ez

⁴ *Ibidem* 34. or

⁵ *Ibidem* 42-43. orr

⁶ Eresia irakurtzeko aukera. Ezezaguna. Milia Lasturkoren eresia (XV-XVI). *Klasikoen gordailua* <https://klasikoak.armiarma.eus/testuak/herri14011.htm>

⁷ Barandiaran, A. (2000) “El euskara cantado: bertsolarismo de entresiglos”. Jimeno, R. Nieva, J.L. López, J.J. Garmendia, V. Mata, C. Garcia-Sanz, A. Chueca, J. Panizo, I. Satrustegui, J.M. Iriarte I. eta Erize, X. *El euskera en tiempo de los euskaros*, Nafarroako Gobernua; Iruñea. 299. or

inprobisatuak, hala ere, bertso horiek idazten zituztenak inprobisatzeko ohitura zeukatela jakin ahal izan da, baina, horien kopurua urria da⁸.

Bertsoak sortzeko moduak ezagutzeko, ez zen zantzurik egon XX. mendeko hirurogeiko hamarkadara arte. Izan ere, data horretara arte kontserbatu edo geratu zena, bertso zatien bilduma bat izan zen, material asko eskeini gabe. Mundu honen barruan, “klasikotzat” hartzen diren bertsolariak daude; Etxahun, Xenpelar, Bilintx, etab. Horiek, inprobisatzaile onak izan ziren eta historian zehar beraiek utzitako aztarna garrantzitsuenak beraiek diktatutako bertsoak edo idatzitakoak izan ziren gaur egunera arte kontserbatzea posiblea izan delako⁹. Hala ere, kontserbazio hori ahoz-ahoz lortzea posiblea izan da, kantu herrikoien antzera, belaunaldiz belaunaldi entzunda eta abestuta gaur egunera arte mantentzen direlako. Horren adibide moduan, “Isil-isilik” kantu herrikoa kokatuko litzateke, duela hirurogeita hamar urte ondoren, abesten dena. Mende horretan zehar, bertsolaritzak aldaketa sakonak jasan zituen hasierako bertsolaritzarekin ia zer ikusirik izan gabe¹⁰.

3.2. XIX. eta XX. mendeak

Sarrera moduan, aipatzekoa da, XIX eta XX. mendeen artean Juan Mari Lekuonak epe ezberdinak sailkatu zituen bertsolaritzaren historiaren barruan: lehenengo fasea, 1800-1839 urteen bitartean kokatuko litzateke Aurre-erromantizismo moduan izendatua. Bigarrena, 1839-1876 urteen bitartean kokatuko litzateke Erromantizismo garaia izango litzatekeena. Ondoren, 1876-1935 urteen artean Aurre-berpizkundea garaia egongo litzateke, eta azkenik, 1935-1968 bitartean, BERPIZKUNDEA¹¹.

Bertsolaritzak, azkenengo bi epe horietan garapen handiagoa izan zuela esan daiteke. Izan ere, Aurre-berpizkundearen garaian (1876-1935), Gerra Karlisten ostean, gerra artean bertso-paperek nagusitasuna izan zuten gehiago osatzen zirelako¹². Aurrekariak kontuan hartu behar dira, izan ere, XIX. mendean egondako gerrek, euskal literatura markatu zuten bertan irakurri ahal diren gaiei eta argitalpenei dagokienez.

⁸ Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*, Etxepare Institutua. Donostia 43-44. orr

⁹ Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*. Etxepare Institutua. Donostia. 44. or

¹⁰ *Ibidem* 44. or

¹¹ Barandiaran, A. (2000) “El euskara cantado: bertsolarismo de entresiglos”. Jimeno, R. Nieva, J.L. López, J.J. Garmendia, V. Mata, C. Garcia-Sanz, A. Chueca, J. Panizo, I. Satrústegui, J.M. Iriarte I. eta Erize, X. *El euskera en tiempo de los euskaros*. Nafarroako Gobernua. Iruñea. 299. or

¹² *Ibidem* 299.or

Mende honetako mugimendu literario garrantzitsuenetarikoa erromantizismoa izan zen, gizabanakoaren nagusitasuna eta herrien nagusitasuna predikatuz. Mugimendu horrek, folklorealetasuna eta herri kulturaren bilketak bultzatu zituela esan daiteke eta herri literatura ere aintzat hartu zuen. Horren barruan, euskal olerkigintzaren suspertzea koka daiteke, olerki lehiaketak egiten zirelako besteak beste. Lehiaketa horien artean, Antoine d'Abbadie kokatu beharko litzateke, Euskal Festak (Lore Jokoak) antolatu zituen eta horien barnean Koplarien Guduak (1853-1897). III. Karlistada bukatu ondoren, 1876, Euskal Herriko hegoaldeko probintziek foruak galdu zituzten eta Pizkundera eman zen, euskal literaturak garapena lortuz¹³. Mende honen amaieran egondako beste ezaugarri garrantzitsuenetariko bat, euskarazko kazetaritza izan zen, aktualitatea adieraziz erreportai edo astekari moduan, ospetsuenak *Eskualduna* eta *Eskualdun Ona* ziren adibidez¹⁴.

Horrez gain, bertsolari askoren handitasuna nabarmendu zen, batzuk ospetsu bihurtu zirelarik; Txirrita, Udarregi, Pello Errota, Pedro Mari Otaño eta Kepa Enbeitia “Urretxindorra” adibidez. Gainera, aipatu behar da, horietatik, Txirrita, Udarregi eta Errota, ez zirela alfabetatuak izan, ahozkotasunean bizi baitziren, izan ere, garai hartan alfabetatugabea izatea “normala” zen nolabait. Horrez gain, gizartearen gutxienengo batek baino ez zuen idatzizko kultura ezagutzen. Momentuko bertsolarien arteko antzekotasuna, bertso-paperetan gai erlijiosoak erabiltzen zituztela da, eskualdeko gertakarien kontaketa edo euskal kulturari buruzko gaiak bezala¹⁵.

Hala ere, Bizkaia eta Gipuzkoako bertsolarien artean ezberdintasuna egon zen, horien aberri sentimendua bertsoetan oso nabaria zelako (foruen indargabetzearen aurrean izandako erantzuna adibidez). Nafarroarekin konparatuta, aberriaren sentimendua handiagoa izan zen, baina, gizarte aldaketak bi probintzia horietan gogorragoak izan zirela azpimarratu behar da. Epe honen barruan, Elizondon egindako Koplarien Guduak (1879) sartzen dira eta bertan, euskararekin erabilitako prosopopeia saritua izan zen, euskara irudi pertsonifikatu baten moduan jarri zutelako, “Ama Euskara” sortuz. Prosopopeia hori, joera abertzalea zuten bertsolariek bereganatu zuten

¹³ Altzibar, X. Literatura vasca: siglo XIX. *Auñamendi Eusko Entziklopedia. Fondo Bernardo Estornés Lasa*. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/artikulu/153838/>

¹⁴ Villasante, Fr. Luis. (1979) “El siglo XIX”. *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aranzazu. Burgos. 157.or

¹⁵ *Ibidem* 300.or

eta irudi hori, tokiko-kulturaz kontzientziatzeko erabili zuten¹⁶. Horrez gain, Foru Joko horietan, normalean, bertsolaritza erabiltzen zen literatura herrikoari garrantzi handiagoa emanez, Katalunian ez bezala¹⁷.

Literaturan ikusi daitekeen aldaketa bat, euskal gizartea bizitzen ari zen egoera izan zen, izan ere, Bizkaiko ekonomia hazten hasi zen, siderurgian batez ere. Bertako ekonomiak gora egin zuen, gerra bitartean nazioarteko merkatuan sartuta egon zelako eta esportazioak bideratzen zituelako (burdin mearena). Gipuzkoan, hazkundera izan zuten fabrikak oihalgintzan, papergintzan eta elikagaietan oinarritutako enpresak izan ziren¹⁸. Nahiz eta, orokorrean euskal industrializazioak hazkundera izan, ez zen era berean probintzia guztietan eman. XX. mendearen hasieran, Euskal Herriaren egitura ez zen homogenea eta populazio gehiena Bizkaian eta Gipuzkoan kokatzen zen (%84)¹⁹. Garapen horrengatik euskal probintzietan kapitalen metaketa bat eman zen eta horrek, finantziario sektoreari zabaltzeko aukera eman zion. Aipatu behar da, industrializazioak gizarte-klase berri bat sortu zuela, langileria. Klase horren bizi-maila nahiko txarra zen, nahiz eta hazkunde garaian bizi, haien soldata errealak ez ziren igotzen. Beraz, eskubideen aldeko erakundeak osatzen hasi ziren XIX. mendean zehar, sindikatuak zirenak Bizkaian, ondoren Gipuzkoara hedatuz²⁰. Hala ere, hazkunderarekin batera krisi sakon bat egon zen 1918-1921 urteen artean, eta Gerra Zibilak (1936-1939) euskal ekonomian ondorioak sortu zituen; lan-eskaintza gutxitu zuelako, kapital-ondasunak suntsitu eta erbesteratu zein errepresaliatuen ezagutza teknikoak galdu²¹.

Hitz gutxitan esanda eta literaturara bueltatuz, bertsolaritza inprobisatuaren historia, 1935. urtetik aurrera dokumentatua izan zen, nahiz eta, aurretik aurrekariak

¹⁶Barandiaran, A. (2000) "El euskara cantado: bertsolarismo de entresiglos" Jimeno, R. Nieva, J.L. López, J.J. Garmendia, V. Mata, C. Garcia-Sanz, A. Chueca, J. Panizo, I. Satrustegui, J.M. Iriarte I. eta Erize, X. *El euskera ne tiempo de los euskaros*, Nafarroako Gobernua; Iruñea. 301.or

¹⁷ Kataluniako Lore Jokoen sorrera eliteek bideratu zuten eta katalanera hizkuntza ikasia moduan ikusten zuten. Normalean idatziz espresatzen ziren joku horietan, eta Euskal Herrian, aldiz, bertsolaritza erabiltzen zen, idazkera ahula izanda. Zabaltza, X. (2018) "Del «renacimiento» literario al nacionalismo político? Una comparación entre los territorios de lengua catalana y los de lengua vasca (1850-1900)". *Historia y política*, 39. 154. or

¹⁸ González Portilla, M. (1988) "Aspectos de la industrialización del País Vasco" *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*. 9-10 zbk. 175-178. or

¹⁹ Valdalisio, Jesus Maria (2010) "Industrializazioa XX.mendearen lehen herenean eta haren protagonistak" Jose Luis de la Granja eta Santiago de Pablo. *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendea*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo. 171.or

²⁰ *Ibidem* 190-191. or

²¹Catalán, J. (2010) "Economía industrial baten heldutasuna 1936-1999" *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendea*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo. 197.or

egon zirela eta existitzen zela jakin. Garziak dioen bezala, bertso solte batzuk aurkitu ahal izan dira data horren aurretik egindakoak, horrez gain, bertsolaritzari buruz egindako historia, 1800. urtean idatzitakoa da eskuratu ahal izan dena. XX. mendearen erdialdean dokumentatua izan zenez, kontuan hartu behar da ere, Gerra Zibiletik gaur egunera arte egondako testuingurua.

3.2.1. Gerra Zibila eta Frankismo garaia

Laburki Euskal Herriko historiari buruz mintzatuz gero, aipagarriak diren ideia batzuk azpimarratu beharko liriateke; 1937an, gerra bizirik zegoen bitartean, euskal demografiak galera handiak jasan zituen. Euskal Herria momentu horretan banatuta egon zen, alde batetik, Bizkaia eta Gipuzkoa eta bestetik Araba eta Nafarroa. Horien arteko ezberdintasuna, lehenengo bi probintziek tropa frankistei erresistentzia ezartzearena izan zen, eta beste biak gerraren aldekoek zirenekin batu zirela. Beraz, Franco-k traidoretzat hartu zituen Bizkaia eta Gipuzkoa. Gerra bukatu zenetik aurrera, frankistek euskal lurraldeak bereganatzen joan ziren 1937. urtean momentuan Euskadiko hiriburua zen Bilbo konkistatzea lortu arte, eta ondorioz, Euskal Herri osoa. Ondorioz, berrogei urtez euskaldunek beraien ohitura, hizkuntza eta kulturaren erabileraren debekua jasan zuten analfabetizazioaren kopurua handituz. Momentu horretan, euskaraz idatzitako argitalpen gehienak erre ziren zigor bortitzak ezarriz euskara erabiltzen zutenei, gaztelaniaren erabilera inposatuz²².

Debeku horiek direla eta, bertsolaritza munduan isiltasunaldi bat egon zela esan daiteke 1936-1945 urteen artean. Gerraostea ez zen ona izan euskal lurraldeetan, izan ere, Aitzol, lehendabiziko bi txapelketetan sustatzaile nagusia izan zena, fusilatu egin zuten Hernanin 1936an. Hala ere, biziraupena izan zuen bertsolaritzak Basarri eta Uztapideren eskutik besteak beste (1945-1960). Iñaki Eizmendi "Basarri", hiru urte erbestean egon ondoren Gipuzkoara bueltatu zen 1942an. Erregimenak, euskaraz onartzen zuen jarduera bakarretako bat bertsolaritza izan zen eta bertan, horren biziraupena haratago eramatearen ekimenak egin zituzten. Bestalde, Ipar Euskal Herrian, baldintzak ezberdinak izan ziren, Bigarren Mundu Gerra bukatutakoan 1945. urtean, mediku gipuzkoar erbesteratu bat Teodoro Hernandorena izenekoa, iparraldeko

²² Ezezaguna. El régimen franquista. *kondaira.net*. <http://www.kondaira.net/esp/Historia0020.html>

hiru probintzietan zehar bertsolarien bila ibili zen. Hark, bertso-jaialdiak eta lehiaketak antolatu zituen eta horregatik agertu zen bertsolari talde bat²³.

Bertsolaritzaren historian egondako beste epe garrantzitsu bat, erresistentziako bertsolaritza izan zen 1960-1979 urteen bitartean. Garai honetan, Euskaltzaindiak lan handia egin zuen Euskal Herri osotik bertsolari bila ibiliz²⁴. Euskaltzaindia, XIX. mendeko hainbat euskaltzalek eraturako erakundea izan zen, Luis Luciano Bonaparteren laguntzarekin eta Arturo Campion, Urkixo, Azkue eta beste hainbaten laguntzarekin batera. Lehenengo ekimena Bizkaiko Foru Aldundian egin zen eta 1918ko urrian Euskaltzaindia eratzea posible izan zen. 1956-1968 bitartean euskarazko prentsa berrindartzea izan zuen helburu eta euskara, ikastolen bitartez irakastea²⁵. Euskaltzaindiak bertsolariak bilatzeko ahalegin horien emaitza, 1960an antolatutako bertsolari txapelketa izan zen²⁶.

3.3. Txapelketa-nagusien historia

Txapelketek historia bat izan dute ere, eta normalean hiru epetan banatzen da; gerra aurreko txapelketak (1935-1936), Euskaltzaindiak antolatutako txapelketak (1960-1982) eta azkenik, Bertsozale Elkarteak antolatutako txapelketak (1986-gaur egun). Gerra aurreko epean, bertsolaritza egindako lehenengo txapelketa kokatzen da, 1935. urtean eginikoa eta bertan, Euskal Herri osoko hogeitaz bertsolari bildu ziren eta bertan, Iñaki Eizmendik, “Basarri”, parte hartu zuen txapelketa bilakatu zelarik. 1936an egin zen bigarren txapelketa, parte hartzaileen kopurua handitu zen hogeita hamar bertsolari izatera ailegatuz eta honetan finalera heltzeko lehiak egon zen. Txapelketa honetan, Manuel Lujanbio “Txirrita”-k irabazi zuen²⁷.

Bigarren epea, gerraostean kokatzen da, gerra bukatu eta hogeitaz urte pasa ondoren gutxi gorabehera. Momentu horretan, Euskaltzaindiak zabalkundea izan zuen, lehen aipatu dugun moduan, eta hori dela eta, Bertsolari Txapelketa bat antolatzeko

²³ Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*. Etxepare Institutua. Donostia. 58-62. orr

²⁴ *Ibidem* 62.or

²⁵ Euskaltzaindia. Historia Laburra. *Euskaltzaindia. Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Langue Basque*.

http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&Itemid=55&catid=78&id=48&lang=es&view=article

²⁶ Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*. Etxepare Institutua. Donostia. 64.or

²⁷ Bertsozale Elkarteak. Txapelketak. *Bertsozale Elkarteak*.
<https://www.bertsozale.eus/eu/bertsolaritza/historia/txapelketak>

baimena lortu zuen 1960an besteak beste. Honetan, berrogeita hamasei bertsolarik hartu zuten parte eta horien artean egon zen “Basarri”.

Urte horretatik aurrera egondako txapelketen artean, hiruk ospea eman zioten Manuel Olaizolari “Uztapide”-ri, 1962, 1965 eta 1967ko txapelketek hain zuzen ere. Gainera, Basarrirekin herriz herri bertsoak botatzen aritu zen.

Epe honen amaieran egondako bi txapelketek, 1980 eta 1982koek, berrikuntza handi bat ekarri zuten, eta bereziki Xabier Amurizak. Amurizak, euskara batua erabili zuen bere inprobisazioan, ordura arte ia ezezaguna zen batasun ortografiko hura, horrez gain, metafora sartu zuen bertsoetan, doinu berriak, etab. bertsolaritza modernoaren oinarriak ezarriz azkenean²⁸.

Azkenik, 1986tik gaur egunera arte irauten duten txapelketak daude. Txapelketen antolamendu eran desadostasunak egon zirenez momentu batean, Euskaltzaindia txapelketetik urruntzen hasi zen. Ondorioz, bertsolariek, bertsozaleak zirenen laguntzarekin batera, 1986ko txapelketa antolatzea lortu zuten. Antolamendu hori lortu ondoren, Bertsozale Elkarteak sortu zen. Txapelketa “berri” horietan, ehun parte hartzailek osatzen zuten gutxi gorabehera eta normalean, Donostiako belodromoan egiten ziren²⁹.

4. AZTERKETA PROSOPOGRAFIKOA

GRAL-ren helburua, prosopografia teknikaren bidez bertsolaritzaren historia garatzea izan da eta historia egiteko orduan gure aportazioa eskaintzea datu berritzaile batzuk emanez, jarraian irakurri ahal diren orrialdetan aurkeztu den ikerketa mota honetako lehendabizikoa baita. Bertsolaritza, Euskal Herriko kulturaren garrantzia duen elementua izan da eta hori osatu eta aurrera eraman zuten protagonistak kontuan hartzea ezinbestekoa izan dela jakin behar da, hau da, protagonistak eurak, aktore historikoak. Aurretik aipatu den moduan, prosopografia teknika erabili da lana aurrera eraman ahal izateko. Teknika honen jatorria, zibilizazio Helenoan kokatzen da, *prosopon* eta *graphos* hitzen batasunetik besteak beste. *Graphos* hitza, idazkerarekin erlazionatu

²⁸ *Ibidem.*

²⁹ *Ibidem.*

beharreko kontzeptua da, eta *prosopon*, aldiz, “pertsonei buruz idaztea izango litzateke”³⁰. Orokorrean, biografia multzo baten konparaketa egitean datza teknika horren erabilera eta funtzioa, ikertu nahi den taldearen perfila lortzeko. Gure kasuan, metodologia horren aplikazioa Euskal Herriko bertsoaritzara mugatu da protagonisten ezaugarri komunak nabarmentzeko helburuarekin eta bertsoaritzak Euskal Herriko kulturaren izandako garrantzia osatzeko nahiarekin. Horrez gain, txapeldunak horrekin zer nolako harremana duen ikusteko erabilgarria izan da, euskal kultura hori ordezkatzeko duen edo ez jakiteko, etab.

Teknika honen historian sartuz gero, aipatzekoa da horren erabilera aspalditik datorrela, faktore politiko administratibo eta militarri zuzendua zegoena besteak beste. Ondoren, XX. mendean zehar, gutxinaka historia garaikidea aztertzeko tresna bilakatu egin da³¹.

Orokorrean, prosopografia modu egoki batean erabiltzeko eta baliagarria izateko, lortutako biografiek galdera batzuei erantzun behar die. Normalean, galdera horiek, faktore batzuekin lotuta egoten dira; jaiotza, ezkontza, jatorri soziala, egoera ekonomikoa, bizilekua, jasotako hezkuntza, aberastasun pertsonala eta familiarra... Azken finean, galdera horiekin, datu pertsonal batzuk lortzen dira, ikerketarako baliagarriak direnak, izan ere, galdera horiek, ondorioak lortzeko bide dira. Gainera, galderak egin baino lehen, elkarriketan parte hartuko dutenei galdetegia bidaltzea komeni da bakoitzarentzat aproposa ez den galderaren bat balego kendu ahal izateko. Ondoren, erantzunak lortutakoan, emaitzak berrikusten dira eta jarri diren helburuak lortzeko baliagarriak direnetan arreta handiagoa jartzen zaie. Kontuan hartu behar da, emaitza on batzuk lortzeko, talde txikiak egitea komenigarriagoa dela eta horrez gain, ahalik eta iturri gehien laguntza izan. Hala ere, iturriek dagokienez, zailtasunak egon ahal dira, edozein ikerketa historikoa aurrera eramaterakoan, iturriek muga asko jartzen dituztelako.

³⁰ Stone, L (1986) *El pasado y el presente*, FCE, Mexiko, 61. orr

³¹ Metodologiari buruz gehiago jakin nahi izanez gero ikus: Keats-Rohan, K.S.B (2000) “Prosopography and computing: a marriage made in heaven?”. *History and Computing*, 12-1. 1-11. orr edo Aguirreazkuenaga, J. eta Urquijo, M. (2007) “Desafios de la biografía en la historia contemporánea”. *Cercles*, 10. 57-61. orr

Metodologia hau erabiltzerakoan edukitako zailtasun nagusienetariko bat, elkarrizketak egitearena izan da. Azken finean, mugatutako talde txikian, gure artean ez dauden txapeldun batzuk daude, eta horrez gain, elkarrizketak burutzeko zailtasunak egon dira beste batzuekin adina dela eta, edo lana dela eta³². Horrez gain, egon den beste zailtasun bat, biografia eskasa daukaten iturriak bakarrik daudela da, datu zehatz batzuk besterik ez dituztenak ematen, eta horiekin ezin dira nahi diren emaitzak lortu.

Beraz, lana aurrera eraman ahal izateko jarritako mugak ezberdinak izan dira; alde batetik, bertsolari guztiak ikertu beharrean, txapeldunak izandakoak bakarrik aukeratu dira, guztiak ezaugarri komun bat daukatelako, txapelketa bat behintzat irabazi dutela. Horrez gain, prosopografia hobeto aplikatzeko talde txiki bat edukitzea errazagoa delako horretan mugatu da. Hala ere, taldea txikiagoa izateko eta errazago izateko, kronologikoki epe jakin batzuk aukeratu dira, 1936. urtetik, Inazio Eizmendi Manterola “Basarri” txapelduna izan zenetik, 2017. urtera arte, Maialen Lujanbio Zugasti txapelduna izan arte. Bestalde, esparru geografikoari dagokionez, ez dugu berezitasunik egin, txapeldunak izandakoen bidea jarraitu dugulako faktore nagusi bezala.

4.1. Prosopografia lantzeko taldearen antolaketa

Euskal Herriko bertsolaritzako biografia multzoa, bederatzi bertsolari txapeldunetara mugatu da. Taldea osatu ahal izateko hartutako irizpide nagusienetarikoa, 1960tik 2017ra egondako bertsolari txapelketetan irabazleak batzea izan da, hau da, “Basarri”-tik (1935ean eta 1960an txapelduna), Maialen Lujanbora (2009 eta 2017an txapelduna) arte³³. Hala ere, bi epe ezberdinetan sailkatu ziren, Frankismo Garaia alde batetik (1936-1975) momentuko bertsolariak bazeudelako ere “Txirrita” adibidez, eta bestetik, Francoren heriotzatik gaur egunera arte (1975-2018).

³² Adibidez, Jon Lopategi bertsolariarekin elkarrizketa burutzeko asmoa egon zen, baina, adina dela eta zaila izan zen azkenean galdetegia gauzatzea.

³³ Denbora tarte horretako txapeldunak:

Inazio Eizmendi Manterola “Basarri” (1935ean eta 1960an txapelduna).

Jose Manuel Lujanbio Retegi “Txirrita” (1936an txapelduna).

Manuel Olaizola Urbieto “Uztapide” (1962an, 1965ean eta 1967an txapelduna).

Xabier Amuriza Sarrionaindia (1980an eta 1982an txapelduna).

Sebastian Lizaso Iraola (1986an txapelduna).

Jon Lopategi Lauzirika (1989an txapelduna).

Andoni Egaña Makazaga (1993an, 1997an, 2001ean eta 2005ean txapelduna)

Maialen Lujanbio Zugasti (2009an eta 2017an txapelduna)

Amets Arzallus Antia (2013an txapelduna)

Xenpelar Dokumentazio Zentrotik lortutakoa.


Beraz, bilatzen ditugun ezaugarriak betetzen dituen taldea osatu ondoren, galdetegia prestatuko litzateke. Galderak egiterakoan, ezin da ahaztu zer lortu nahi den, orduan, galderak bilatzen ari zaren erantzunarekin erlazionatuta egon behar dira.

Elkarrizketak egin aurretik, elkarrizketatuak izango direnen multzoa mugatu behar da. Lan honetan, bertsolarietan mugatu da, baina, txapeldunak izan direnetan. Horrez gain, kronologia muga bezala erabili da ere, historia garaikidearen barruan kokatuz eta bereiziki 1935. urtetik 2017. urtera. Horien artean, elkarrizketak burutzea zaila izan da, gerra garaian bizitako bertsolariak gure artean ez daudelako jada. Hala ere, interneteko datu basea erabili da behar den informazioa osatzeko. Interneteko datu-baseari buruz hitz eginez gero, bertan erabilitako iturriak *Bertsozale Elkarte*a izeneko weborria izan da edota *Auñamendi Entziklopedia*.

Orokorrean, biografiak garatu ahal izateko, hiztegi biografikoetan dagoen egitura erabili da eta egitura horretan, multzo ezberdinak topa daitezke, alde batetik, familia zirkulua egongo litzateke, horren barruan pertsonaiaren datu pertsonalak galdetzen dira, hau da, jaiotza, bizitako ibilbidea, bizilekua, heriotza, etab. Beste multzo bat, oinarri materiala da, pertsonaiaren ondasun eta errenten inguruko datuak lortzeko galderak direnak. Bestetik, inguru sozio-kulturalarekin lotutako galderak daude, bertan, izandako heziketa, jarduera profesionala eta giro kulturalari buruzko galderak sartzen direnak (1. irudia).

Behin galdetegia egindakoan, bertsolariei aurrez bidaltzea komeni da, galderaren batekin arazorik izanez gero argitzeko alegia. Guztia argi egonda, elkarrizketak egitea da hurrengo pausua. Orduan, zerrenda izanda eta zehaztuta edukita, biografiak garatzeko eta osatzeko informazio iturri nagusiak erabili dira; alde batetik, bibliografia egongo litzateke, pertsonaietan zentratuak izan direnak, edota beraiekin lotura bat izandakoa, adibidez, Antonio Zavalaren liburua, Txirritaren bizitzari buruzkoa³⁴. Bertsolariei dagokienez, beraiei buruzko bibliografia gutxi dago eta bertsolaritzari buruz ere, baina, garatzeko aproposa.

³⁴ Ikus. Zavala, A. (1962) *TXIRRITA. Jose Manuel Lujanbio Retegi*. Auspoaren Sail Nagusia. Tolosa.



(1. irudia)

Alonso, E., Onaindia, A. & Urquijo, M. (2015) "Oral history for the history of Parliament".
Parliaments, Estates and Representation. 35:1. 115.or

Helburua lortu ahal izateko, bertsolari bakoitzaren bizitza eraiki behar da, eta horretarako, eskura dauden iturri guztiak ikertu eta bildu behar dira. Gainera, kontuan hartu behar da, iturri bakoitzean aldaketak egon ahal izan direla, eta biografia batez hitz egitean, denboran zehar aldaketa ugari izan ditzake³⁵. Beraz, bildutako iturri guztien artean nolabaiteko sailkapen eta konparaketa bat egin behar da. Gainera, berriki argitaratutako iturriak garrantzitsuagoak dira lan honetarako, historiako azkenengo mendeetan kokatzen delako eta horrez gain, iturri horiek berriagoak direnez informazioa eguneratua egoteko aukera handiagoak daude³⁶. Faktore horiek kontuan hartuta, mota ezberdinetan antolatu ahal dira iturriak.

Alde batetik, bibliografia dago, lanaren garaian egindako lan orokorrak direnak eta gizartearen bizi baldintzak nolakoak ziren aipatzen dituztenak bereziki. Bestetik, Interneten aurkitutako datu-basea dago, informazio orokorra aurkitu daitekeen tresna dena, eta bertsolariei buruzko informazioa bila daiteke horrekin. Egunkaria beste mota bat izango litzateke, prentsak askotan, bertsolariei buruzko informazio biografikoa eskeintzen dutelako, txapelketetan edo beste arloetan izandako ekintzak azaltzarekin batera. Gaur egun informazio gehiago eskaintzen dutela esan daiteke, adibidez, BERRIA egunkariak euskal kulturari buruz mintzatzeko atal bat izaten du. Bestalde,

³⁵ Alonso, E., Onaindia, A. & Urquijo, M. (2015) "Oral history for the history of Parliament".
Parliaments, Estates and Representation. 35:1. 116.or

³⁶ *Ibidem* 117.or

artxihoak erabili ahal dira, hala ere, mugatuak izaten dira normalean, pribatasunak eskura izateko oztopoak sortzen dituelako eta horrez gain, artxiho horien gainean ezarritako legediak daude zailtasunak sortuz. Ikus-entzumenezko iturriak daude, baita bideo eta argazkietan oinarritzen direnak ere, horiekin, bertsolariei buruzko dokumentalak, aldizkariak, argazkiak ikertu ahal dira nahi dugun emaitza lortu arte. Azkenik, elkarrizketa bidezko iturriak kokatzen dira, elkarrizketak egiteko aukera izateak premiazko informazioa eskuratzea laguntzen du, lehen eskutik eskuratutakoa delako besteak beste³⁷.

4.2. Elkarrizketa bidezko iturria

Elkarrizketa bidezko iturriak, baliagarrienak direla esan daiteke, pertsonaren bizitza eratzeko aukera eskeintzen dutelako³⁸. Beraz, lanerako premizkoa izan diren iturriak horiek izan dira, azken finean, beste iturri motetan, Interneten aurkitutako datu-basean edo bibliografian, informazio gutxi lortu da. Elkarrizketarekin, bertsolari bakoitzaren aktibitatea eta informazioa lortu da, gaurkotua dagoena eta lana nahi den helburuetara eramateko aproposena dela esan daiteke. Hori askotan, beste iturrietan egondako oztopoa izan dela esan daiteke, eguneratzerik ez dutelako eduki. Hala ere, kontuan hartu behar da, galdera bakoitzean bertsolari ezberdinek bere iritzia izango dutela, ikuspegi ezberdinekin eta subjektibitate handiarekin. Gainera, nahiz eta informazio baliagarria lortu iturri mota honekin, oztopoak aurkitu ahal dira, pertsona guztiekin kontaktuan jartzea zaila izan daitekeelako.

Kontuan hartu behar da, lortutako informazioa ez dagoela erabat osatua, metatutako informazioa, elkarrizketatuak (bertsolaria kasu honetan) oroitutako edo aukeratutako datuak direlako. Horrez gain, galdetegian dauden galderek informazio osoa lortzeko mugak ere badituela esan daiteke³⁹. Mugen arazoarekin jarraituz gero, kontuan hartu behar da, elkarrizketak egiteko momentuan beste oztopo nagusi bat elkarrizketa egingo zaionaren adina da⁴⁰. Azken finean, adinak memoria ondorioztatzen du. Horrez gain, elkarrizketa egiteko gaitasuna txikiagoa izan daiteke ere, eta horrek beste iturri motak erabiltzea behartzen gaitu (artxihoak, dokumentuak, bibliografia,

³⁷ *Ibidem* 117. or

³⁸ *Ibidem* 118. or

³⁹ Alonso, E., Onaindia, A. & Urquijo, M. (2015) "Oral history for the history of Parliament". *Parliaments, Estates and Representation*. 35:1. 119.or

⁴⁰ *Ibidem*, 119-120.orr

etab.). Adibidez, Jon Lopategi Lauzirika-rekin zailtasun hori gertatu dela esan daiteke, eta bere semeak laguntza guztia eskaini digu galdetegia egin ahal izateko. Hala ere, bere informazioa beste iturri batzuetatik lortu behar izan da ideia bat edukitzeko.


Elkarrizketak ondo burutu ahal izateko, mugatutako bertsolari txapeldunen artean, burutu ahal direnekin kontaktuan jartzea izan da lehenengo pausua, e-mail bitartez edo telefono bitartez. Behin hori lortuta, jorratutako galdetegia bidaltzea izan da hurrengoa, beraiek galderak elkarrizketa egin aurretik ikusi ahal izateko eta galderaren batekin ados ez badaude edo galdetegiarekin orokorrean ados ez bazeuden aurrez jakiteko. Aipatu dugun moduan, elkarrizketatuak izango direnen multzoa mugatu behar da erraztasuna izateko. Lan honetan, txapeldunak izandako bertsolarietan zentratu da eta historia garaikidearen barruan egon direnak. Gogoan hartu behar da, zailtasunak eta oztopoak aurkitu direla elkarrizketak egiterako momentuan.

5. AZTERKETA PROSOPOGRAFIKOAREN EMAITZAK

Emaitzak, burututako galderetatik lortu dira orden bat jarraituz. Lehenengo galdera-multzoan, bertsolari bakoitzaren datu pertsonalei buruzko galderak aurkitu ahal dira, adibidez, noiz eta non jaio ziren, umetan eta gaztetan leku berean bizi ahal ziren edo ez... Beraz, bertsolari txapeldunen jatorriari dagokionean, lortu dugun emaitza da, bertsolari gehienak Gipuzkoan jaio zirela da (2. irudia), multzo horren barruan, José Manuel Lujanbio “Txirrita”, Inazio Eizmendi “Basarri”, Manuel Olaizola Urbieta “Uztapide”, Sebastian Lizaso Iraola, Andoni Egaña Makazaga eta Maialen Lujanbio sartuz. Orokorrean bederatzitik sei dira gipuzkoarrak, %66. Ondoren bi bizkaitar daude, Xabier Amuriza Sarrionaindia eta Jon Lopategi Lauzirika direnak %22a betetzen dutenak. Eta azkenik, Ipar Euskal Herrian jaiotako bertsolari bat dago, Amets Arzallus Antia dena alegia %11 osatuz. Aipagarria da ere, Araban eta Nafarroan jaiotako bertsolari txapeldunik ez egotea.

Bigarren galderei dagokienez, familia-esparruari buruzko galderak dira, gurasoen izenak eta bizilekua galdetuz, beraien lana, ekonomia, baten batek bertsolaritzarekin zer ikusirik izan duen, etab. Familia inguruari dagokionez bertsolaritzan aritzen direnak antzeko maila-ekonomikokoak diren ala ez jakiten datza,

izan ere, bertsolaritzan hasi ziren gehienak analfabetizazioaren barnean kokatzen zirelako eta maila xumekoak zirelako. Lortutako erantzunen batez bestekoa eginez gero, bertsolarien familia gehienek izandako ekonomia, baxua izan da, baserri munduarekin harreman estua izanda. Gutxi gorabeherako kalkulua eginez gero, %66 ekonomia-maila horretan kokatuko litzateke, Xabier Amurizaren eta Amets Azallusen familiak adibide izanda.



(2.irudia)
Galdetegiarekin lortutako informazioarekin egindako grafikoa

Ekonomiaren arloko galderen ondoren, elkarrizketatuak izandako hezkuntza zer nolakoa den jakiteko galderak formulatu ziren galdetegian. Horren barruan, ikasketei buruzko galderak daude (ikasketa-maila altua, ertaina edo baxua daukan), eta bestetik, bertsolaritzaren inguruko ikasketarik jaso duten ala ez (bertso-eskolak adibidez). Honen barruan, sailkapenak egin ahal izan dira, izan ere, hilik dauden artean “Txirrita” lehen aipatu den moduan, alfabetatu gabea zen, bere garaian egoera hori normaltzat hartzen baitzen, 1860an jaio baitzen. “Basarri”, “Uztapide” eta Xabier Amurizatik aurrera, dauden txapeldun gehienek ikasketa-maila altua daukatela esan daiteke, hau da, Batxillerra daukatela edo Unibertsitatean ikasketak egin dituztela. Gehienak, hizkuntzarekin lotutako ikasketak edo ofizioak lortu dituztela esan daiteke, %88. Xabier Amurizaren kasuan, elkarrizketan apaiza izan zela aipatu zuen eta goi-mailako ikasketa

moduan hartzen zela “...Ni apaiz egin nintzen. 13 urteko karrera, 11 urtetik 24ra. Suposatzen da ikasketa maila altua dela. Masterrik edo doktoretzarik ez nuen egin. Ikasketa maila altua izan arren, gero, apaizgoa utzitakoan, batxilerra bakarrik aitortzen zitzaigun zibilki. Nik ez nuen ezer egin, neure ikasketak zibilki homologatzeko”⁴¹.

Bestalde, bertso-eskolei dagokienez, kontaktua izan duten gehienak Xabier Amurizatik aurrera egondakoak izan dira, batzuk eskola horietan irakasle izanda eta beste batzuk ikasle, %33 osatuz. Amets Arzallus-ek adibidez, txikitatik murgilduta egon zen bertso-eskoletan, elkarrizketan esan zuen moduan; “ Bai, ni ba txikitatik Hendaiako bertso-eskolan hasi nintzan, egia esan ez dakit, baina, aitak zeramazkin ta ordun etxean ez egotearren, bertso-eskolara juten ginen. Ikastea ez bazan bazter batean egotea. Bostsei urtekin ni Hendaiako bertso-eskolan ikusi nuen nere burua, eta hor segitu det denbora guztian.”⁴².

Hurrengo blokea, lan-esparruari buruzko galderez osatua dago. Galdera horietan, txapeldun izan aurretik zertan lan egiten zuen jakin nahi izan da, eta txapeldun ondoren aldaketarik egon bada bere ofizioan. Bestalde, galdera horiekin jakin nahi izan dena, txapelduna izanda bere ekonomia egoera aldatu den jakitea izan da eta bertsotan bakarrik aritzearekin bakarrik ekonomikoki bizi daitekeen ala ez. Multzto honetan, garaiaren arabera sailkatu daiteke, hasierako txapelketetan agian ez zelako dirurik lortzen sari bezala. Elkarrizketekin lortu ahal izan den emaitza, gehienak bertsolaritzan eta beste lan batean aritzen direla da (%90), hala ere, bertsolaritzatik bakarrik bizi daitekeela baieztatzen dute ere. Adibideren bat aipatzearren, Andoni Egaña aipa daiteke, bertsolaria ez ezik, literaturan hainbat esparru jorratu dituelako “Nobela bat argitaratu nuen eta, bai, 98an edo 97an igual. Gazteen literatura ere liburu bat idatzi dut, saiakera liburu pare bat ere bai liburu dibulгатiboren bat bai, denetik.”⁴³.

Esparru soziokulturalarekin jarraituz gero, bertan egindako galderak orokorrean euskarari buruzkoak dira. Horiekin jakin nahi dena da, bakoitzak euskararekin zer nolako harremana daukan da, horren ikasketa-maila nolakoa den jakitea, hau da,

⁴¹ Xabier Amuriza Zarrionaindia. 2018.03.15. E-mail-aren bidez egindako elkarrizketa.

⁴² Amets Arzallusi egindako elkarrizketa. 2018. 04.26. Telefonoz.

⁴³ Andoni Egañari egindako elkarrizketa. 2018.08.27. Telefonoz.

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) daukaten jakitea eta horrez gain euskaldun zaharrak diren ala ez, etab. Orokorrean, familia gehienak eta bertsolari gehienak euskaldunak ziren, txikitatik, eta haien euskara-maila oso altua (%88). Horrez gain, nahiz eta euskaldun zaharrak izan, guztiek ez dute EGA titulua, horrenbestez ehuneko bat ezarritz gero, gutxi gorabehera %44ak daukala esan daiteke. Gutxiengo batek agiri hori edukitzearen arrazoi bat, agiri hori 1982. urtean martxan jarri⁴⁴ zela da eta momentu horretarako, bertsolari askok lan egiteko ez zuten agiri hori berhar.

Azkenik, azkenengo multzoa, bertsolaritza-munduari buruzkoa da, eta bertan, noiztik hasi ziren bertsoetan, ondoren bertsolaritza, noiz parte hartu zuten txapelketetan, etab. galdetzen da. Orokorrean, gehienak gaztetan lehenengo kontaktua izan dute bertsolaritzaekin edo bertsoetan aritzearekin. Sebastian Lizasok adibidez, etxean lehenengo kontaktua izan zuen bertsoekin: *“Harremana etxetik dakorkit, Aita bertsolari izateak erreztu zidan bidea giroa betidanik ezagutu dudalako”*⁴⁵.

Horrez gain, emakumeari buruzko bi galdera zehatz egin dira, haien papera nolakoa zen jakiteko garai ezberdinetan. Galdera batekin, emakumeek bertsoetan parte hartzeko aukerarik zuten ala ez jakin nahi da, eta bestetik, ea txapelketetan parte hartzeko aukerarik zuten. Txapelketen nagusien artean, lortu den erantzuna, emakumeen parte hartzerik ez zegoela da, horiek, Frankismo Garaikoak direla azpimarratu beharko litzateke, eta gogoratu momentu horretan emakumea bigarren plano batean bizi zela. Gazteagoen artean, aldiz, emakumeen parte-hartzea geroz eta nabariagoa izan dela jakin ahal izan da, hala ere, Xabier Amurizak elkarrizketan komentatu zuen moduan, hark ez zuen emakumerik ezagutu baina, izen bat komentatzen du, Kristina Mardaraz: *“Ni hasi nintzanean, ez zebilen emakumerik plazan. Beharbada, Kristina Mardaraz Bizkaian? Besterik ez, behintzat.”*⁴⁶.

Kristina, bizkaitarra zen eta hainbat talderen sorreran parte hartu zuela jakin dugu, horien barruan bertso-eskolak kokatuz. Horrez gain, Bertsolari Elkartearen sorreran parte hartu zuen. Emakumeei bertso-plazako ateak zabaltzeko ahaleginean

⁴⁴ Eusko Jaurlaritzak. (2017) Boletín Oficial del País Vasco. *euskadi.eus*. https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1998/10/9804736a.shtml?BOPV_HIDE_CALENDAR

⁴⁵ Sebastian Lizasori egindako elkarrizketa. 2018.03.17. E-mail-ez.

⁴⁶ Xabier Amurizari egindako elkarrizketa. 2018.03.15. E-mail-ez.

egon zela esan daiteke⁴⁷. Hala ere, bi adinen artean, etorkizun batean emakumeak parte hartu eta txapeldun izango zirelaren itzaropena zuten. Maialen Lujanbiok lortu zuen azkenean bi aldiz txapelketa irabaztea, 2009an eta 2017an. Berak ere, emakumeren batek parte hartzeko eta irabazteko aukerak zeudela komentatu zuen telefonoz egindako elkarrizketan 2018ko maiatzaren 5ean. Orduan, bera ere emakumeei ateak zabaltzeko prozesuaren barruan dagoela esan daiteke.

⁴⁷Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Biografias. Kristina Mardaraz. *BDB Bertsolaritzaren datu-basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/-Kristina-Mardaras>

6. ONDORIOAK

Ondorioei dagokienez, lanean zehar aipatu den antzera galdetegiak galdera multzo ezberdinak izan ditu eta bakoitzean ondorio ezberdinak atera ahal izan dira, hau da, esparru soziokulturaleko galderetatik batzuk, hezkuntzari buruzko galderetan beste batzuk, etab. Horrez gain, prosopografia erabiltzeak daukan zailtasuna, biografietan lortutako informazioa askotan oso eskasa dela da, eta bertsolaritzaren historiaren inguruan ere gutxi idatzi dela. Hala ere, lortutako informazioarekin, ondorio batzuk atera ahal izan dira, bertsolaritza munduarenak, euskararenak eta emakumeak izandako paperarenak. Horiek ondorio nagusienetarikoak izan direla esan daiteke.

Orokorrean, atera ahal izan den ondorio nagusienetarikoa, bertsolari gehienengan, euskararekiko daukaten sentimendua oso handia dela da. Izan ere, gehienek, euskara-maila altua izateaz gain, euskal kulturari garrantzi handia ematen diote. Garrantzi hori ematearen arrazoia, euskarak izandako eraso ugariren ondorioa izan daitekeela pentsa daiteke (euskaraz idatzitako liburuak erretzea, erabilera debekatzea, etab.). Francisco Franco-k 1936an militarrek eman zuten estatu kolpearen ondorioz, Espainiako estatuaren boterea eduki zuen garaian (1939-1975), euskal kultura eta hizkuntzaren erabileraren gaineko debekua ezarri zuen bertako nazio sentimendua txikitzearen helburuarekin. Beraz, bertsolaritza euskara ez desagerrarazteko erabili den tresnetariko bat izan zela pentsa daiteke eta hizkuntzarekin harreman estu bat izan duela betidanik. Horrekin batera, bertsolari askok hizkuntzarekiko atxikimendu hori transmititu eta sentitzen dutela esan daiteke, adibidez, Xabier Amurizak. Izan ere, gerraoste beltzaren ondorengo pizkundearen hasiera bizi izan zuen⁴⁸.

Bestalde, beste ondorio bat, bakoitzaren jaiotze-herriari dagokio, azterketa prosopografikoaren emaitzetan esan den moduan, txapeldunak izandako bertsolari gehienak 1935etik 2017ra bitartean gipuzkoarrak izan dira. Horrek ez du esan nahi gipuzkoarra izateagatik txapelduna izateko erraztasunak daudela, baina, atera daitekeen ondorioetako bat, bertan dagoen euskararekiko atxikimendua oso handia dela bai. Historian begirada bat emanez gero, bertan ikus daiteke, Gipuzkoan, Bizkaian bezala, euskal zaletasuna oso handia zela eta beraien nortasunagatik borrokatu zutela. Izan ere,

⁴⁸ Xabier Amurizari egindako elkarrizketa. 2018.03.15. E-mail-ez.

1936. urtean Gerra Zibila hasi zenean Euskal Herria bi zatitan banatua egon zela, alde batetik, Araba eta Nafarroa egon ziren, estatu kolpean eman zuten militarrekin bat egin zuten nagusiki, eta bestetik, Bizkaia eta Gipuzkoa, Errepublikaren alde egon zirenak. Orokorrean, erresistentzia handiena adierazi zuten probintziak izan ziren⁴⁹. Gainera, Bertsolaritza Txapelketak betidanik Donostiako belodromoan egiten ziren, orduan, badirudi, Gipuzkoan, bertsolaritzarekiko zaletasun handiagoa egon dela eta hori, euskal zaletasunarekin lotuta egon daitekeela.


Aurki daitekeen beste ondorioetako bat, bakoitzaren hezkuntza-maila izan da, nagusienak direnen artean hezkuntza-maila askoz baxuagoa baita gazteen hezkuntzarekin konparatuz gero. Azken finean, Gerra Zibila baino lehen jaio eta bizitako bertsolarien hezkuntza-maila baxuagoa izan zen ez zegoelako ikasketak burutzeko aukera askorik (“Txirrita” adibidez). Momentuko gazte gehienak soldaduskara bideratuak izaten ziren normalean edo etxeko ekonomia aurrera eramateko lan askotan lan egiten zuten ikasketak atzean utziz. Horrek, lehen ez zuen kalterik sortzen txapelduna izateko, ikasketak izateak ala ez, ez zuelako ondorioztatzen bertsolaritzan. Azken finean, euskaran trebea eta bertsoan trebea izanda nahikoa zela pentsa daiteke. Gazteagoak direnekin konparatuz gero, berien arteko ezberdintasuna ikasketa-maila dela esan genezake, denboran eguneratzen ari garen heinean, gero eta ikasketa altuagoak dituztelako. Azken finean, gaur egungo analfabetatze-tasa askoz txikiagoa da hezkuntza-sistema hobetzen joan delako gaur egunera arte.

Bertsolaritzari buruzko galderetan beste hainbat ondorio atera ahal izan dira. Bertsolaritzak izandako beste aldaketa bat denboran zehar, bertso-eskolen agerpena izan da, Jon Lopategiren eskutik sortu zirenak besteak beste 1980-90eko hamarkadan⁵⁰. Eskola horietan bertsolaritza irakasten da eta *Xenpelar Dokumentazio Zentroaren* datu-basean ikusi ahal izan den moduan, Euskal Herri osoan orotara 132 bertso-eskola daude eta Gipuzkoan kontzentratzen dira eskola gehienak 56 izanda (3. irudia). Bertso-eskola horiek sortzeak ekarritako ondorioetako bat, bertsolaritzak gaur egun indarra izatea izan da, Jon Lopategi sorrera horretan parte hartu zuenatariko bat izan zela aipa daiteke. Eta beste hainbatek horietan ikasi zutela ere, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Andoni

⁴⁹ Ezezaguna. La Guerra Civil Española en Euskal Herria. *hiru.com*. <https://www.hiru.eus/es/historia/la-guerra-civil-espanola-en-euskal-herria>

⁵⁰ Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Biografias. Jon Lopategi. *BDB Bertsolaritzaren datu-basea*. <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/-Jon-Lopategi>

Egaña, adibidez. Azken finean, eskola horiek Ikastola edo eskoletan zabalduz joan da gazteriaren artean bertso-larritza zer den eta nola erabiltzen den erakutsiz. Beraz, biziraupenerako funtsezko tresna bat dela esan daiteke.




(3.irudia)

Xenpelar Dokumentazio Zentroaren datu-basetik lortutako informazioarekin egindako grafikoa.

Bestalde, eskola horiek, bertsoan gazte gehiago bertso-tara erakarri dutela esan daiteke, txikitatik irakasten den eskola mota bat delako ikastetxe batzuetan. Gainera, grafikoa ikusi daitekeen moduan, eta lehen aipatu den antzera, bertso-eskola gehienak Gipuzkoan kokatzen dira, eta horren arrazoi-tako bat, Gipuzkoan euskararen erabilera beste probintzietan baino askoz handiagoa dela ikus daiteke, egindako ikerketen arabera antzeman daitekeen moduan (4.irudia). Eta bertso-larritzak, euskararekin duen harremana oso estua denez eta bertso-lari gehienak bertakoak direnez, normala dela bertan metatzea. Horrez gain, Gipuzkoan euskaldun nortasun handia aurkitu daitekeen euskal probintzia denez, Bizkaia antzera, bertso-eskolen erabilera handiagoa izatea normala izan daiteke.

Kale erabilera, Herrialdeka. Euskal Herria, (%)



(4.irudia)

Kale erabilera 2016an. Euskararen datu soziolinguistikoen biltegia.
<http://www.soziolinguistika.eus/edb/index.php?erakus=orriak&zo=727>

Emakumearen paperari dagokionez bertsoen munduan, aldaketak jasan dituela esan daiteke. Ezin da zehatz mehatz jakin gurekin ez daudenen bertsolariek emakumeekin bertsoak partekatu zituzten ala ez, baina, argi dago, garaiko gizarte motari dagokionez emakumea bigarren plano batean egoten zen beti, nahiz eta, bertsolaritza emakumeen artean ere egin. Xabier Amuriza bertsotan zebilenean, hau da, XX. mendearen erdialdean emakumeak bertsotan aritzea oraindik arraroa zen, baina, gazteen artean, emakumeen presentzia handitu dela ikusi ahal izan da eta horren adibide Maialen Lujanbio izan da, 2009an eta 2017an txapelduna izanda.

Gizartearen eredu aldatu delako gertatu da hori eta emakumeek ez dutelako berdintasunaren borrokarekin bukatu oraindik. Gutxinaka gutxinaka bigarren planotik lehenengo planora pasatzen joan dira esparru publikoetan jarduten lortu arte. Agian, bertsotan aritzen zirenak ez zieten debekurik jartzen emakumei bertan aritzeko, baina, gizartearen ondorioz, bertan jarduten zuen edozein emakume txarto ikusita egongo zen. Batzuk, espero zuten momentu batean emakumeren batek txapelketa irabaziko zuela eta parte hartzea normala izango zela, beraz, guztiek itxaropen apur bat zutela ondorioztatu daiteke, hau da, emakumea bigarren planotik aterako zelaren itxaropena.

Lortu ahal izan den beste ondorio bat, bertsolaritzan aritzearen eragina normalean euskararekin izandako zaletasuna izan dela da, hau da, hizkuntzarekiko curiositatea izan dutela. Horrez gain, familiako kideren batengatik edo familia osoarengatik ere batzuk sartu direla ikusi ahal izan da. Gainera, bertsolari gehienek liburu edo artikuluren bat argitaratu dute noizbait edota kazetaritza edo prentsa munduan lan egiten dute gaur egun. Ondorioa, bertsotan aritzeak, idazteko trebetasun eta erraztasun handiagoa ematen duela da, sinonimo ugari buruz jakiten direlako inprobizazioa ondo ateratzeko.

Txapelketen ereduari dagokionez, beste hainbat aldaketa egon direla ikusi ahal izan da, batez ere txapelketen historia arloan. Epe ezberdin horiek azkenean, txapelketetan jarduteko era aldatu du ere, gaur eguneko era ekarriz. Gainera, aipatu behar da, Xabier Amurizak egindako aldaketa, euskara batuaren erabilera alegia. Horrek ondorioztatu zuen txapelketetan erabiltzen zen euskara. Hortik aurrera aldatu baitzen eta euskara batua gehiago erabiltzen hasi zen, gainera, errimak errazago egiteko aukera ematen zuela jakin da. Horrek, azkenean, txapelketetan dagoen entzulegoak bertsoek zer esan nahi duten ulertzea ekarri zuten, euskara batuak euskalki guztiak batzen dituelako, batasun ortografiko bat da eta ondorioz, horren kopurua handitzen joan zela esan daiteke.

Laburbilduz, bertsolari txapeldunaren perfila modu honetara zehaztu dezakegu; Gipuzkoan jaioa dena normalean (lehen aipatu den moduan, bederatzi txapeldunetik 6 gipuzkoarrak baitira). Bestetik, euskararekiko atxikimendu handia daukan pertsona dela, normalen euskaldun zaharra izanda, hau da, txikitatik euskara erabiltzen duela. Horrekin batera, bertso-eskoletatik igarotako pertsona bat dela esan daiteke, gaur egun indar handiagoa daukatelako esparru horiek eta nolabaiteko harremana izatea erraza delako. Ikasketekin jarraituz gero, hezkuntza-maial ertain eta altuaren artean kokatzen da perfila. Bestalde, euskal kulturarekiko daukan harremana ere oso handia dela jakin ahal izan da. Horrez gain, nahiz eta, epe jakin batzuetan gertatutako gertaera historiko batzuen ondorioz egoera txarrak jasan, bertsolaritzak indarra atera ahal izan duen euskal arte mota bat izan dela esan daiteke. Eta ateratako indar horrek euskara ez desagerraraztea lagundu duela pentsa daiteke, euskal biztanleriari txoko txiki horretako altxor preziatuenetarikoa zein den adieraziz. Bestalde, aipatu daitekeen bigarren

mailako ondorio bat, arte mota honek ez daukala harresirik eta haratago dohala gizartearen eredutik at geratuz. Horren barruan, emakumeen parte hartzea areagotzea sartuko litzateke alegia.

7. BIBLIOGRAFIA

- Aguirreazkuenaga, J. eta Urquijo, M. (2007) “Desafios de la biografia en la historia contemporanea”. *Cercles* 10. 57-81.orr
- Alonso, E., Onaindia, A. & Urquijo, M. (2015) “Oral history for the history of Parliament”. *Parliaments, Estates and Representation* 35:1. 109-131.orr
- Barandiaran, A. (2000) “El euskara cantado: bertsolarismo de entresiglos”. Jimeno, R. Nieva, J.L. López, J.J. Garmendia, V. Mata, C. Garcia-Sanz, A. Chueca, J. Panizo, I. Satrustegui, J.M. Iriarte I. eta Erize, X. *El euskera en tiempo de los euskaros*, Nafarroako Gobernua, Iruñea. 295-306.orr
- Catalán, J. (2010) “Economía industrial baten heldutasuna 1936-1999” *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendea*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo. 197-223.orr
- Garzia, J. (2012) *Bertsolaritza, El bertsolarismo*, Etxepare Institutua, Donostia. 113 or.
- González Portilla, M. (1988) “Aspectos de la industrialización del País Vasco” *Ekonomiaz: Revista vasca de economía*. 9-10 zbk. 173-187.orr
- Keats-Rohan, K.S.B. (2000) “Prosopography and computing: a marriage made in haven?”. *History and Computing*, 12-1.
- Stone, L. (1986) *El pasado y el presente*, FCE Mexiko. 292 or.
- Valdaliso, Jesus Maria (2010) “Industrializazioa XX.mendearen lehen herenean eta haren protagonistak” Jose Luis de la Granja eta Santiago de Pablo. *Laurak bat. Euskadi eta Nafarroa XX. mendea*. Euskal Herriko Unibertsitatea. Bilbo. 171-196.orr

- Villasante, Fr. Luis. (1979) “El siglo XIX”. *Historia de la literatura vasca*. Editorial Aranzazu. Burgos.
- Zabaltza, X. (2018) “Del «renacimiento» literario al nacionalismo político? Una comparación entre los territorios de lengua catalana y los de lengua vasca (1850-1900)”. *Historia y política*, 39. 141-170.orr
- Zavala, A. (1962) *TXIRRITA. Jose Manuel Lujanbio Retegi*. Auspoaren Sail Nagusia. Tolosa. 510.or

8. WEBGRAFIA

- Altzibar, X. Literatura vasca: siglo XIX. *Auñamendi Eusko Entziklopedia. Fondo Bernardo Estornés Lasa.* <http://aunamendi.euskantikuntza.eus/es/artikulu/153838/>
- Euskaltzaindia. Historia Laburra. *Euskaltzaindia. Real Academia de la Lengua Vasca. Académie de la Langue Basque.* http://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&Itemid=55&catid=78&id=48&lang=es&view=article
- Ezezaguna. El régimen franquista. *kondaira.net.* <http://www.kondaira.net/esp/Historia0020.html>
- Ezezaguna. La Guerra Civil Española en Euskal Herria. *hiru.com.* <https://www.hiru.eus/es/historia/la-guerra-civil-espanola-en-euskal-herria>
- Ezezaguna. Milia Lasturkoren eresia (XV-XVI). *Klasikoen gordailua* <https://klasikoak.armiarma.eus/testuak/herri14011.htm>
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Biografias. Andoni Egaña. *BDB Bertsolaritzaren datu-basea.* <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/andoni-egana>
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Biografias. Jon Lopategi. *BDB Bertsolaritzaren datu-basea.* <https://bdb.bertsozale.eus/es/web/haitzondo/view/-Jon-Lopategi>
- Xenpelar Dokumentazio Zentroa. Biografias. Kristina Mardaraz. *BDB Bertsolaritzaren datu-basea.* <https://bdb.bertsozale.eus/web/haitzondo/view/-Kristina-Mardaras>
- Eusko Jaurlaritza. (2017) Boletín Oficial del País Vasco. *euskadi.eus.* https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/1998/10/9804736a.shtml?BOPV_HIDE_CALENDAR

9. ELKARRIZKETAK

- Amets Arzallus.i egindako elkarrizketa. 2018.04.26. Telefonoz.
- Andoni Egañari egindako elkarrizketa. 2018.08.27. Telefonoz
- Maialen Lujanbiori egindako elkarrizketa. 2018.05.18. Telefonoz.
- Sebastian Lizasori egindako elkarrizketa. 2018.03.17. E-mail-ez.
- Xabier Amurizari egindako elkarrizketa. 2018.03.15. E-mail-ez.